

### **3. ELKARTEAK**

Gure enpresa lau bazkideok bideratzen dugu, baina hasi berriak garenez beste elkarte edo enpresekin batera kolaboratu beharko dugu gure proiektua eta helburuak aurrera eramateko.

Gure produktuak atal eta osagarri asko dituen enpresa batek ezingo du osotasunean egin, beraz, inteligentzia artifizialean aditua den enpresa batekin; bozgoragailuak egiten dituen batekin; ura kontrolatzeko, iturjin batekin eta eskuak eta produktua bera egingo duen enpresa batekin jarri beharko ginateke kontaktuan. Horrez gain, produktu hau hezurretan edo giharretan arazoak dituzten pertsonetara bideratua dagoenez mediku edo fisioteraputa batekin hitz egitea komenigarria izango litzateke, esku hauek gure bezeroengan ondorio txarrik eduki ez dezaten.

Gainera, gure produktua diseinatu dugun arren, ez gara gai hauetan adituak, eta beraz, guretzat eta gure bezeroentzat komenigarrienak diren materialak zehazteko biomedikuntzan adituak diren edo makina hauek diseinatzen dituzten pertsoneri ere aurkeztu beharko genieke gure ideia.

Horrez gain, garraio enpresa batekin lan egin beharko genuke, gure produktua fabriketatik adostutako dendetara eraman dezan eta baita publizitate enpresa batekin ere, gure produktua modu profesional eta serio batean gure bezeroengana iritsi dadin.

Laburtuz, gure ideia izan den arren, enpresa eta profesional askoren laguntza beharko dugu Showerrapid aurrera eraman ahal izateko. Gure helburua gure bezeroei kalitatezko produktu bat eskaintzea baita.